

LANARTEA: ZER ETA ZERTARAKO

PRINTZIPIOAK ETA EGOERAK

(2021.10.30)

BOST PRINTZIPIO

1 LANARTEA, EUSKARAREN LANGILE AUTONOMOEN INDARGUNEA

Lanartea elkarte sozialen sailean erregistratua dago Eusko Jaurlaritzan AS/A/23259 zenbakiarekin, Euskararen Langile Profesionalen Elkarte gisa.

Euskararen langileetan, inoren gainekoak eta geure gainekoak gaude.

Geure gain lan egiten dugunok gara euskararen subordinazioa gogorkien jasaten dugunak.

Sakabanatuak eta indar ezin eginik gaudelako sortu genuen elkarte.

2 LANARTEA, EUSKARAREN LANBIDE GUZTIAK DUINTZEKO

Hizkuntzak lanbide asko sortu ditu, eta berarekin zuzenean lan egiten ez duten sortzaileak erakarri ere bai. Horrela, musika dela edo liburu irudidunak direla, euskara zuzenean erabili gabe euskararen barruan diharduten autonomo ugari daukagu. Lanartearen sorreran egon dira alor hauetako langileak ere.

Kontzienteak gara euskararen langile soldatadunek eta autonomoek arazo berdinak dauzkatela hainbat alorretan.

3 LANARTEA, INDUSTRIA BATEN HORNITZAILEAK GARELAKO

Argitaletxeak, banatzaileak, aretoak, dendak, Euskal Kulturaren azpiegitura dira.

Egitura geure gain dago, guk sortutakoa merkaturatzen dute. Euskararen langileoi esker daukagu publiko bat eta erosleko bat.

4 LANARTEA, ESKUBIDE MORAL ETA EKONOMIKOAK BERMATZEKO

Gure lanak balio etikoa eta estetikoa dauka. Merkatura ateratzen denean, balio ekonomikoa hartzen du. Baina urteak daramatzagu tratu zabarrak eta kontratu lotsagarriak jasaten.

Horregatik batu gara Lanartean.

5 LANARTEA, BAKARKA EZIN DENA DENOK DENONTZAT LORTZEKO

Lan baldintza duinak eta lan irabazi duinak lortzeko eratu da Lanartea, besteak beste.

Gure lorpenak euskararen langile guztien lorpenak izango dira, langile autonomoak izan edo ez eta Lanarteako afiliatuak izan edo ez. Lanartea euskararen langile guztien zerbitzura dago aholkua, informazioa eta laguntza emateko.

BOST EGOERA

6 LEHENAK AZKEN

Euskararen langileok lehengaia sortzen dugu.

Baina, aldi berean, azkenak gara gure lanak emandako mozkina jasotzeko.

Bere gain dihardutenek, bestalde, lau ogasunen irizpide desberdinak jasan behar dituzte.

Horrek batzen gaitu aldarri berean indar egin lezakeen erakunde honetan bertsolariak, idazleak, irudigileak, itzultzaileak, musikariak, kantariak, kazetariak...

7 EUSKALGINTZAREN AZPIAN, KULTURGINTZAREN AZPIAN ??????

Zehazki definitzeko kontzeptu zail samarrak dira Euskalgintza zein Kulturgintza.

Laino handi bana direla esan genezake.

Jardunaldiz eta ekitaldiz, elkarteak eta erakundeak, teknikariz eta boluntarioz, saltzailez eta sortzailez, burokratez eta funtzionarioz, soldatapekoz eta autonomoz, ugazabek eta beharginez betetako mundu nahasi bat osatzen dute: arazoak, gatazkak, abusuak estaltzen dituzten hitz fetitxeak ditugu Euskalgintza eta Kulturgintza, gero eta gehiago.

Mundu lauso horrek, oro har eta besteak beste, doakotasunaren *status quo* bat bermatzen du.

8 EUSKARA SUBORDINATUA, LANGILEOK SUBORDINATUAK

Euskara subordinaturik, zirkuitu ekonomikotik kanpo uzten gaituzte euskararen langileok urtez urte. Erakundeen promozioko, publizitateko eta informatzeko kanpainetan ageri den mezua, gaztelaniaz sortutakoaren itzulpena izaten da euskaldunontzat maizegi (EITBrenak, adibidez). Gure bazterketak, kalte handia dakarkio euskararen eta euskal iruditeriaren kalitateari: topikoak, sasi-modernitateak eta itzulpen automatikoak nagusitzen dira.

Erdalkeriak maizegi definitzen ditu, ofizialki, euskara eta euskaldunak.

9 LANGILE AUTONOMOEN ESTATUSA

Kulturan bere gain diharduenak zerga biltze irrazionala jasaten du.

Urteko diru sarreren araberrako kotizazio sistema baten alde egingo du indar Lanarteak.

10 EUSKAL KULTURAREN LEGEA

Ikur nazional hutsa izatetik Euskal Herriaren Kultura Modernoaren Motorra izatera heldu da euskara, hizkuntza lantzen dugun langileoi esker. Euskal Kulturaren Legea aldarrikatze hau, bistan da, euskararen langile autonomoon estatusarekin lotua dago, eta haren osagarri politiko eta juridikoa behar du izan.

Ondare unibertsalek ohi duten aitortza eta babesa zor zaio gure hizkuntzaren sormenari.